

DEIALDIA: OSASUN ARLOAN TEKNOLOGIA GARATZEKO PROIEKTUAK 2023 (ISCIII)

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, Carlos III Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, 2023ko dirulaguntzetarako deialdia egin du osasun arloan teknologia garatzeko proiektuetarako. Deialdia 2021-2023 aldiko Osasun Ekintza Estrategikoaren barruan dago, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotua.

Interneteko helbidea:

<https://www.isciii.es/Paginas/Inicio.aspx>

Kontaktuak:

<https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/solicitudes/Paginas/Contactos.aspx>

Deialdiaren helburua:

- Finantzatzea Kontzeptu Proben modalitatean, kalitatea kontrastatuko ideiak baliozkotzera bideratutako proiektuak, TRL (*Technology Readiness Level*) eskalarekiko heldutasun teknologikoan 3 edo 4ko balioa lortzea helburu dutenak, hau da, ideia hori laborategi mailan garatzea eta baliozkotzea bilatzen dutenak.
- Finantzatzea, prototipoen balidazio teknologikoaren modalitatean, kalitatea kontrastatuko proiektuak, aldeztatik baliozkotutako ideia batetik abiatuta TRL eskalarekiko heldutasun teknologikoan 5 edo 6ko balioa lortu nahi duten proiektuak, hau da, ingurune garrantzitsu batean prototipo bat garatu eta baliozkotzea bilatzen dutenak.

Proiektu motak eta horien ezaugarriak:

- a) **Bakarkako Proiektuak:** erakunde eskatzaile batek aurkeztuak, eta ikertzaile nagusi arduradun bat lider gisa duen ikertalde batek gauzatuko dituenak.
- b) **Koordinatutako Proiektuak:** bi azpiproiektu edo gehiagok osatutakoak. Azpiproiektu bakoitzak bere taldea eta ikertzaile nagusia izango ditu. Behar bezala justifikatu beharko da memorian koordinazio horren beharra..

Proiektuak gauzatzeko epe arrunta:

- Kontzeptu proben proiektuen modalitatean, **2 urtekoa** izango da, dirulaguntza emateko erabakian zehazten den egunetik aurrera kontaktzen hasita.
- Prototipoen balidazio teknologikoaren modalitatean, **3 urtekoa** izango da, dirulaguntza emateko erabakian zehazten den egunetik aurrera kontaktzen hasita.

NAHITAEZKOA izango da proiektuek lotura izatea proiektu horiek garatzeko interesa duten enprekin edo beste erakunde publiko edo pribatuekin, eta parte hartze horrek ez lieke inolako laguntza zuzenik ekarriko deialdi honetan eman litezkeen dirulaguntzen kontura.

Informazio garrantzitsua ikertzaile nagusientzat:

vrinvestigacion@ehu.es
www.ehu.es

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA
T: 94-601.8008

Osasun ikerketako institutu (OIS) bati atxikitako ikertzaile nagusiek hori adierazi beharko dute zentro moduan eskaera egiterakoan (eskaera egiten duen zentroa edo proiektua egiteko zentroa, kasuan kasukoa). ([Deialdiko 3.4 artikulua](#)).

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

[Deialdiko 80. artikulua kontsultatu](#). **Honako hauek gelditzen dira deialditik kanpo:**

- Langileen kontratazioa
- Informatika eta kopiagintzako suntsigarriak, bulegoko materiala, elkarte zientifikoetako kuotak eta argitalpenetako harpidetzak.
- Mota guztietako asistentzia jardueri lotutako gastuak, deialdi honetako jarduketan xede den ikerketa proiektuarekin zerikusia dutenak barne.
- Jatordu eta protokolo gastuak.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Eskaerak 2023ko martxoaren 30etatik apirilaren 27ra bitartean aurkeztu behar dira (15:00ak arte), biak barne.

Eskaerarako sarbidea:

<https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/Solicitudes/Paginas/default.aspx>

Eskaera izapidetzeko prozedura:

Deialdi honetan, **UPV/EHUk eskaera bakarra babestu dezake**. Horregatik, datuak aplikazioan sartu aurretik, bidali beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordeari (**Apirilaren 16a baino lehen:**

- **Langileen Excela. Ikerketaren webgunean** eskegitakoa, taldea berrikusteko deialdian ezarritako betekizunen/bateraezintasunen arabera.
- **Proiektuaren memoriaren zirriborroa**
- **Ikertzaile nagusiaren CVa** (eta, hala balegokio, IN kidearena), gaztelaniaz edo ingelesez, **CVN editoreak** automatikoki edo CVA-ISCIIE zerbitzua eskaintzen duen FECYTaren CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortuta.

Dokumentazio hau **UPV/EHUko erregistro elektronikoan** aurkeztu beharko da (URL [https://egoitza.ehu.eus/es/registro o-electronico](https://egoitza.ehu.eus/es/registro-o-electronico) helbidean). Eskabidearen destinoan, lehenik eta behin, Ikerketako errektoreordetza aukeratu beharko da, eta, bigarrenik, Deialdien Ikerketa Kudeaketa (U02000256). Horretarako, honako hau zehaztu beharko da: **“OSASUN ARLOKO GARAPEN TEKNOLOGIKOKO 2023 PROIEKTUAK”**. Horretarako, UPV/EHUko enpleguaren ziurtagiri elektronikoa, Izenperen Erabiltzailearen Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa edo FNMT-CERES Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria erabili beharko dira.

Dokumentu horiek **Ikerketa Batzordeari** bidaliko zaizkio, eta **batzorde horrek erabakiko du zein eskaera babestu behar duen UPV/EHUk**. Erabaki hori mezu elektronikoz jakinaraziko zaio ikertzaile nagusiarri. **Adierazitako epetik kanpo jasotzen diren proposamenak automatikoki baztertuko dira.**

Eskaerak eta gainerako dokumentuak aplikazio informatikoaren bitartez bakarrik aurkeztuko dira, hau da, egoitza elektronikoen bidez (<https://sede.isciii.gob.es>).

Legezko ordezkariaren sinadura elektronikoa lortzeko, **eskaera aurkezteko ezinbestekoa den bakarra, apirilaren 26a baino lehen bidali beharko da, asuntuan "OSASUN ARLOKO GARAPEN TEKNOLOGIKOKO 2023 PROIEKTUAK"** jarri, convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera mezu elektronikoko bat, non adieraziko den eskaera sortua dagoela, sinatzeko. Mezuari honako hauek atxikiko zaizkio:

- **Sortutako eskaera inprimakia.** proiektuan parte hartzen duten pertsona guztiek digitalki sinatua. Sinaduraren irudi bat ez da baliozkoa.
- Proiektuaren **memoria** gaztelaniaz edo ingelesez.
- **Ikertzaile nagusiaren CVA** (eta beste ikertzaile nagusirik egonez gero, horiena), CVN editoreak automatikoki edo **CVA-ISCIII** zerbitzua eskaintzen duen FECYTren CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortuta.
- Koordinazio txostena (proiektu koordinatuen kasuan bakarrik).

GARRANTZITSUA: ISCIII institutuaren tramiteei dagokienez, **ikertzaile nagusien eskaera, memoria eta CVA epearen barruan aurkeztzen ez badira, eta dokumentu aratuak erabilia, ez da egongo zuzenketak egiteko eperik eta eskaera deialditik kanpo geratuko da onartzeko tramitean. Gainera, eskaerekin batera deialdiko 91.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.**

Aplikazio telematikoen bidez izapidetutako eskaera inprimakiek **erakunde eskatzailearen legezko ordezkariaren sinadura bakarrik** beharko dute. Deialdiak, hala ere, eskatzen dio erakunde onuradunari gordetzeko proiektuetan parte hartzen duten gainerako pertsonen jatorrizko sinadurak, eta ziurta dezala egiazkoak direla. Horregatik, prozesua amaitu eta gero, lehenbailehen bidali beharko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzara **eskaeraren ale bat, non agertuko diren ikertzaile nagusiaren eta ekipoan parte hartzen duten gainerako kide guztien sinadura elektronikoa.**

Ez da sinatutako barruko epea baino beranduago heltzen den eskaerarik, eta hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, besterik gabe.

Informazio gehiago:

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- **IFK:** Q4818001-B.
- **Egoitza soziala:** Sarriena auzoa z/g, 48940-Leioa
- **Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Gomendatzen da ISCIII institutuaren webguneko laguntza gida eta ohiko galderen atalak irakurtzea: <https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/Solicitudes/Paginas/default.aspx>

Informazioa UPV/EHU:

Telefonoa: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.es

vrinvestigacion@ehu.es
www.ehu.es

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA
T: 94-601.8008

